

## ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



### Ikurriña legeztu zanakua

**H**a be pasau zan. Franco hil barritan, **transiziñoko urte nahasi hareitan** esperantzia, ilusiñua eta **aldaketa-gogua** eukan gizartiaren zati haundi batek; **baitta kezka eta bilddurra** be. Gauza asko bizi izan gittuan denbora gutxian, onerako eta txarrerako: esate baterako, 1976ko martixan Bittorixako gertaera latzak eta maiatzian Montejurrakuak, hildako eta zauritu morduekin, ikaria sartzeko modukuak izan ziran. Urte bereko garagarillian, euskal foruen kentzeiaren mendeurrena zala-eta, Bergaran egin zan konzentraziñuak aldaketa-guria garbi agertu eben. Giro haretan inddartu ziran, bestiak beste, **amnstiaren aldeko kanpaiñak** edota **ikurriñaren legalizaziñuarena**.

Ikurriñarena **1977ko ilbaltzaren 18xan** lortu zan. Hillabete batzuk lehenago **M. Fraga Iribarne** gobernaziño-ministro agozabalarekin eziñezkua zana (*“para legalizar la ikurriña tendrán que pasar por encima de mi cadáver”* bota eben), haren ondorengo **R. Martín Villa** ministro pragmatikuagoarekin eskuratu euen Bergara, Mondrague, Azkoitti, Etxarri Aranatz, Oiartzun eta beste herri batzuetako alkate saiatuak. Hartarako lan gogorra egin zan aurreko hillabetietan udaletan eta beste esparru batzuetan: gogoratu, esaterako, 1976ko abenduaren 5ian **Joxe Anjel Iribarrek** eta **Iñaxio Kortabarriak** Atotxako futbol-kanpuan ikurriñarekin urten euenekua.

Oñatin, beste leku askotan letxe, 1977ko ilbaltzaren 19xan, San Sebastian bezperan, onartu eta ospatu zan legalizañua. Illunkaran aktia firmau ondoren, udaletxeko balkoi nagusixan esegi zan ikurriña Espaiñako banderiaren aldamenian. Orduko **udalgizonak** (artian ez eguen emakumerik kontzejuan) ondorengo honeik izan ziran: **Joxemari Leturia**, alkate moduan, **Reyes Korkostegik** aurreko agorrian dimitidu euelako; **kontzejalak**, barriz, alfabetikoki **Luis Arkauz**, **Markos Arrazola**, **Joxemari Egaña**, **Bixente Egaña**, **Teofilo Etxegoien**, **Juan Igartua**, **Jesus Mari Isasmendi**, **Gurutz Jausoro**, **Santi Kortabarria** eta **Iñaki Zelaia**; **idazkari-lanetan Florenzio Guridik** jardun eben.

Plazan zain eguen jente-pillia txaloka hasi zan ikurriña ofizialki jarritta ikusi ebenian. Ondoren **Oñatz** taldekuak dantza egin euen. Gaurko fotografia batian **Jesus Irizar** eta **Alberto Arregi** agiri dira zeregin horretan. Bestian **dantza-talde osua** dator udaletxeko areto nagusixan eta ikurriñaren aurrian. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Goiko illaran zutik: **Elena Atxa**, **Pili Kortabarria**, **Tere Igartua**, **Mila Igartua**, **Mila Madinabeitia**, **Beatriz Igartua**, **Txaro Uribetxeberria**, **Aitor Arza** eta **Lurdes Elorza**.

Erdiko illaran makurtuta: **Jabier Arabaolaza**, **Benjamin Mugarza**, **Fernando Diaz**, **Jesus Irizar**, **Iñaki Urzelai** eta **Nikolas Negueruela**.

Behian, jazarritta: **Alberto Arregi**, **Juan Jose Zubia**, **Juanjo Unzilla** eta **Anton Umerez**.

Argazkixak J. L. Plazaolak ataratakuak dira eta guk Iñigo Arregiren bidez eskuratu dittugu.

Argibidiak Iñigok berak, Izar Salaberrik, Joxe Mari Egañak eta Jesus Irizarrek samurtu doskue. Eskerrik asko!